

Lau helburuko eredua Materialen diseinuan helburuak zehazteko eskema ulergarriago bat*

Clive Lovelock (Kobe, Japonia)

Artikulu honetan Clive Lovelock-ek BEA (benetako erabilera, erabilera eta argibideak) eredua aztertu eta lau helburuko eredua (testuinguruan jartzea, arretagunea bereiztea, praktika eta erabilera) proposatzen du, ulergarriagoa delakoan. Bestalde, artikulugilea ez dator bat APP eredua (aurkezpena, praktika gidatua eta praktika askea edo ekoizpena) besterik jabe txartzat jo eta bazter uzteko joerarekin. Irakastearen egoera orok bere-berezko ñabardurak ditu; suerta daiteke une edo leku bazuetan irakaslearengan ardazturiko eredu batek ikaslearengan ardazturiko batek baino hobeto funtzionatzea, batez ere irakasle eta ikasleen itxaropen edo helburuen artean alde handia dagoenean.

Bizitzako edozein arlotan atarramendu onik duen orok ondo dakienez –eta guztiak esatean irakasleak eta materialen prestatzaileak ere sartzen ditugu tartean– arrakastaren oinarritzko sekretuetako bat helburu garbiak edukitzea da. Hizkuntzak ikasteko liburu batean oso garrantzitsua da jarduera, ariketa edo atal bakoitzaren helburuak garbi azaltzea, bestela oso errazak baitaitezke irakasle eta ikasleen artean nahasteak edota txarto adituak sortzea. Hala ere, badirudi EFLko irakasleen prestatzaileak¹ nahiko nahasita daudela helburu horiei dagokienez. 1993ko UCLES RSA Cert TEFLA biltzarreko txostenek orain gutxi jakinarazi dutenez (Scrivener-Woodward), biltzar horretan eztabaida biziak egon ziren APP² eredua eskolak antolatzeko planteamendu desegokia zela eta ez zela (plangintza egiteko nahiz behaketan oinarritutako analisisa egiteko). Era berean, eztabaidara ekarri zen eredu horren ordez beste bat jarri beharra, aurrekoa bezain preskribatzailea izango ez den eredu bat, eta hizkuntzak ikasi eta irakasteaz gaur egun dagoen pentsakerari hobeto egokituko zaiona. Eztabaidak oraindik ere jarraitzen du. *The Teacher Trainer* aldizkariak, 1994ko 8#1 alean, gai horri buruzko artikulu batzuk bildu ditu, Scrivener-en lana barne. Argi dago gai hau garrantzitsua dela materialen prestatzaileentzat; horietariko asko, gainera, irakasleen

prestatzaileak ere badira. Artikulu honek ohar batzuk erantsi gura dizkio “APPren osteko eztabaidari”, eta eredu baten zirriborroa eskainiko du hizkuntzak ikasteko jarduerak sailkatzeko. Eredu hau Scrivener-ek emandakoaren antzekoa da, baina apur bat aldentzen zaio.

Iruzkina gehiago APPren gainean

Erresuma Batuz kanpoko irakurleek agian ez dute ezagutuko APP akronimoa. APPk eskola antolatzekeo egitura bat adierazten du, Aurkezpena, Praktika Kontrolatua, Praktika Askea esan nahi duena. Woodward eta Scrivener-ek arrazoi asko eman dituzte azaltzeko zergatik heldu den jendea APP eredu, eskola antolatu edo aztertzekeo oinarri lege, desegokitzat jotzera. Irakasleek jarraitu beharrekeo eredu zurrun eta preskribatzailea zen, irakasle bakoitzaren aurrerabidearen printzipioari kontra egiten zion, eta irakasteko ekintzan ikastean bertan baino indar gehiago jartzen zuen. Gainera, hizkuntzari eta hizkuntzak irakasteari buruzko ikuspegi horrek hizkuntzaren osagaien atomizazio antinaturala zekarren integrazioa ekarri beharrean; deskontestualizazioa sortzen zuen kontestualizazioa eragin barik; syllabus lineala zekarren, syllabus ziklikoaren ordez etab... Analisi horri nik neuk beste puntu bat erantsiko nioke: “aurkezpenaren” kontzeptua APPko beste osagai bietatik kualitatiboki desberdina dela. “Aurkezpena” berba irakasteari aplikatu ohi zaio, ikasteari baino gehiago. Gauzak horrela, logikaren ikuspegitik ez luke besteen ondoan egon behar.

Bestalde, aurkezpenak batez ere irakaslearengan ardaztutako ekintza adierazten du, eta akronimoko hiru osagaien sekuentzian berori lehena denez, beharbada horrexegatik erlazonatuko du jendeak APP eredu ardatza irakaslearengan jartzeko joerarekin. Are gehiago: “ekoizpena” bera EFLko ikasgela gehienetan garrantzizko zeregina bada ere, zoritxarrez hitz ambigua dugu. Sortzea jasotzearekin alderatu ohi da (hitz egitea vs. entzutea edo idaztea vs. irakurtzea alderatzen den bezala). Hortaz, jende gehiena APP ereduak sortutako irakaskuntza eta materialekin pozik ez egoteaz gainera, badirudi terminoak berak nahasterako bidea ematen duela.

Nahiz eta gero eta iritzi zabaldugoa izan APPren ordez beste eredu erabilgarriago bat jarri beharko litzatekeelakoa, muzin egin beharko genioke gehiegizko erreakziorako izan ohi dugun tentazioari, hots, APP ereduari “txarraren” etiketa beste barik eskegitzeko kilikari. Irakastearen egoera orok, ikastalde oro desberdina da gainerakoetatik, bere-berezko ñabardurak ditu; suerta daiteke une edo leku batzuetan irakaslearengan ardazturiko eredu batek ikaslearengan ardaztutako batek baino hobeto funtzionatzea, batez ere irakasle eta ikasleen itxaropen edo helburuen artean alde handia dagoenean. Ez dugu APP beste barik ukatu behar, zertarako-eta APPTik erabat desberdina baina bera bezain zurruna den beste zeozeren aurrean belaunikatzeko. Behar duguna haxe da: irakaskuntzaren helburuak ezarri edo kategorizatzekeo egitura zabalago bat, irakaskuntzaren edozein eredutan aplikatu ahal izango dena, eta irakasleen edo materialen prestatzaileen aukerak aurretik baldintzatuko ez dituen.

Jim Scrivener-ek “ikasi eta irakasteko eredu sinple eta deskribatzailea” proposatu du, BEA izeneko. “(Irakas) esperientziaren maila guztiei aplikatzen zaie” eta irakasleei “hormak jasotzeko hiru adreilu” eskaintzen dizkie, era desberdinetan elkartzen ahal direnak, xedeen arabera. A hizkiak “argibideak eta arretagunea” adierazten du, E hizkiak “erabilera mugatua” esan nahi du, eta B hizkiak, berriz, “benetako erabilera”. Hitzen ordena aldatu dut, eta akronimoaren zehaztasuna sakrifikatu, ezagun dugun APP ereduarekin errazago konparatu ahal izateko. Scrivener-ek irakasleak prestatzeko eredu “gaitzailea” diseinatu gura izan du, eta ez eredu preskribatzaile bat, hots, arreta gehiena ikasleek ustez egin beharko luketen horretan jartzen duten horietakoa. Scrivener-ek BEAri ematen dion definizioa asko hurbiltzen zaio nire eredu zelan-bait ere desberdin honi.

Edonola ere, terminologiari dagokionez, nik “arretagunea bereiztea” nahiago dut, “argibideak eta arretagunea” baino, eta ez bakarrik aurrenekoa sinpleagoa delako, baina baita “arretagunea bereiztea” –“erabilera” bezalaxe– ekintza manipulagarria delako; aldiz, “argitzea” –“ikastea” legetxe– lortu nahi den emaitza kontrolaezina da, eta ez eskola baten barruan ziurtasun osoarekin sartzten ahal dugun osagai bat. Scrivener-en beste kategoria biei gagozkiela, ez diot aparteko merezimendurik ikusten “erabilera mugatua” sintagmari, betiko praktika hutsarekin jarraitzea ez bada. Praktika hitza mundu osoko irakasleek ezagutzen dute. APPn ematen zaion ñabardura berezia, ordea, ELT³ munduaren zati batek bakarrik ulertzen du (eragin handiko zatia bada ere), Erresuma Batuan guinea daukanak, alegia. “Erabilera mugatua” terminoa baztertzen badugu, “benetako erabilera” soberan dago, hirugarren kategoriarako. Nahikoa da “Erabilera”. Idazten irakasteari buruzko artikulua batean, Brian Tomlinson-ek (Tomlinson, 1983) hauen antzeko izenak erabiltzen ditu kategoriak bereizteko, hau da: “gaiaren berri izatea” edo (irakaslearen ikuspegitik) kontzientzia piztea, praktikatzea eta erabiltzea.

BEA siglen azpiko kontzeptuei dagokienez, Scrivener-en Erabilera Mugatua eta Benetako Erabilera nahikoa hurbiltzen zaizkie neure bi kontzepturi: Praktikari eta Erabilerari, alegia. Baina badira diferentzia batzuk. Scrivener-ek *Benetako Erabilera* kategorian –edo *Erabilera* kategorian, nik deitzen diodan bezala– sartzten ditu esanahia eta jarioa; zuzentasuna, berriz, *Erabilera Mugatuan* sartzten du (*Praktika*, neure ereduan). Nik uste dut bai *Praktikak* eta bai *Erabilerak* esanahia, forma, zuzentasuna eta jarioa bil ditzaketela. *Praktikaren* eta *Erabileraren* arteko desberdintasuna bakoitzak hartzen duen arretagune nagusian datza: trebetasunak, teknikak edo hizkuntza, alde batetik, edo komunikazioa edo norberaren adierazpena, bestetik. Azken aldion (hau da, azken bi hamarkadetan) asko azpimarratu da jarioa eta esanahia zein garrantzitsuak diren komunikaziorako, formari lehen ematen zitzaion indar larriegiaren aurkako erreakzio gisa. Hala ere, ez dauka zentzurik formari ere garrantzirik ez emateak. Jarioa ez da *Erabileraren* helburu nagusi bat, komunikazioa lortzeko bide bat baino. Antzera, esanahiari leku nagusia

ematen ez dion *Praktikak* oso balio mugatua izaten du beti; eta ez da batere gauza arraroa jariora lantzeko *Praktika* egitea. Scrivener-ek Erabilera Mugatuan sartzen du testa. Nik, ebaluaketarako erabiltzen denean, *Arretagunea Bereiztean* sartuko nuke; batik bat ikasleentzako lanabes moduan erabiltzen denean, berriaz, *Praktikan* kokatuko nuke. Azkenik, arretagunea komunikaziorako gaitasuna denean (hizkuntz gaitasunarekiko oposaketan), *Erabileran* sartuko nuke testa, baldin eta edukia era artifizialez kontrolatua ez badago. Orain neure kategorien funtzionamendua deskribatuko dut.

**Jarduerak
kategorizatzeko
beste era bat: Lau
Helburuko Eredua**

Zenbait urtez, lau kategoriako eredu batez baliatu naiz hizkuntzak irakasteko, irakasleak prestatzeko eta materialak eratzeko. Hauexek dira kategoriok: *testuinguruan jartzea* (T), *arretagunea bereiztea* (A), *praktika* (P) eta *erabilera* (E). Scrivener-ek dioen bezala, osagaiok modu desberdinetara ordenatzen ahal dira. Ez dago eredu bakarrik, eta APP aldaketak bat izan daiteke.

**Testuinguruan
jartzea (T) (edo
eskematizazioa)**

Kategoria honek, zentzu batean, APPko Aurkezpena hartzen du bere baitan. Izan ere, kategoria honen barruan oso erraz gerta daiteke ikasleei aurkeztea ordura arte eurek topatu ez duten edo behar bezala menderatu ez duten hizkuntza, topo egite horretatik zerbait irabaziko dutelakoan. Hala ere, oinarritzko diferentzia bat dauka Aurkezpenarekiko, puntu honetan ikasleei ez baitzaie inongo aipamenik egiten euren arreta hizkuntz item zehatzetara artifizialki ekartzeko. Ikasleen arretak berori erakartzen duen testuko edozein gauza eta gauza guztiak oro har ulertzean egon beharko luke. "Testua" ikasleek irakurriko duten idazki bat izan liteke; elkarrizketa edo bakarriketa bat izan liteke, zinta edo bideoan grabatua, edo zuzenean burutzen ari dena; mimika-zati bat izan liteke, edo bideo-zati bat, ahotsa kendua duena; ikasleek eurek sortutako testu bat izan liteke, ahozkoa edo idatzia. Input ulergarri eta ondo aberatsa eskaintzen du, eta horrek aukera ematen du testua maila desberdinetan ulertzeko (rol interpersonalak, emozioak, motiboak, asmo/funtzio komunikatiboak, nozio ideazionalak⁴... eta hori, burmuinaren kanal diferenteen erabilera ez aipatzearen, adibidez hitzezkoak ez diren zeinuak prozesatzeko erabiltzen diren kanalak, hau da, gorputzaren hizkuntza, ingurunea, janzkera, testu baten itxura etab. prozesatzeko erabiltzen ditugun kanalak.)

T fase honek estimulu pedagogikotzat jokatu ohi du beste hiru faseetako edozeinetarako, eta hitzezkoa ez den inputa ekar dezake berekin, goian aipatu legez. Bestalde, beste edozein faseren atzetik ere joan daiteke. $P > T$ sekuentzia batean ager daiteke, edota $A > T$ batean, hizkuntzaren puntu bat argitzeko bide bezala, aztertu edo praktikatu berri den kontestu batean, eta T burutzen den bitartean dagoen korrante hartzailea analisi pedagogikoarekin (A) moztu barik. Ikasleek egin berri duten ataza komunikatibo bat jatorrizko hitzunez zelan burutzen duten erakusteko adibide bat izan daiteke; horren ostean, ikasleek bigarren saioa egin lezakete (beharbada, analisisa egin ondoren): $E > T > E$.

Baten batek argudia lezake hori ulermen hutsa dela, hots, jarduera komunikatiboaren modu pasibo huts bat, eta, beraz, E legez sailka daitekeela. Hala ere, gehienetan komunikazioak interakzioan partaide aktiboak izatea eskatzen die ikasleei, edo, gutxienez, entzuleen rola betetzen badaude, informazioa edo gozamina informazio edo gozamen hutsagatik bilatzea. T kategoria entzuleen parte hartzetik (E-tik) bereizten da, ikaslearengandik espero dugulako testua ikustea ez benetako informazio-iturri bezala, baizik eta bide pedagogiko bezala, hizkuntzaren esanahia eta forma funtzionamenduan erakusteko edota hizkuntza esanahiduna eragiteko erabiltzen duguna (eszena ezartzea).

**Arretagunea
bereiztea (A)
(gaiaren berri
izatea,
"kontzientzia
piztea", argitzea)**

Arretagunea hizkuntzaren osagai zehatzak izaten dira (gramatika, ahoskera, hiztegia, testuaren antolakuntza, berbaldiaren analisisa etab.), baina interes kulturalako puntuak ere izan litezke (harremanak, ohiturak, portaera-moldeak, hitzezkoa ez den komunikazioa, sinesteak edo balioak), bai eta ikasteko estrategiak edota autoebaluazioa ere. Irakastearen ikuspegitik abia daiteke (azalpenak/diagramak/adibide nabarmenak); edo ikastearen ikuspegitik (aurkikuntza-atazak/taldeka edo bikoteka egiteko eztabaidak/norberaren hausnarketa).

Berriz ere, etapa hau T, P edo E jarduera baten aurretik egon daiteke (bilatu beharko diren puntuak zehaztuta), baina horietako edozeinen atzetik ere joan liteke (errekuperazioa).

Praktika (P)

Scrivener-ek dioenez, hauxe da P-ren ezaugarri bereizgarria: ikasleek egin ditzaketen aukerak artifizialki mugatuta egotea. Horren bitartez, ikasleak forma edo kontzeptu jakin batzuekin ohitzea lortu nahi da. Kategoria honek birziklaia-elementuren bat izan ohi du bere baitan. Sarritan ez dago batere informazio-hutsunerik, edo, egonez gero, oso txikiak izaten dira. Edozelan ere, P-k jarduera multzo oso zabala hartzen du, guztiz mekaniko eta errepikakorrek diren drilletatik (adibidez ordezkatze eta transformatze-eraketak) bukaera askoz ere irekiagoak dauzkaten jardueretara (esaterako, oinarri-oinarrizko gidoi batekin egiten diren rol-jokoak) non ikasleari burutu beharreko ekintzak agintzen zaizkion, baina ez hizkuntza. Puntu horretan P kategoria E-rekin elkar-tzen da.

P kategoria T-ren edo A-ren ostean joan ohi da, baina errekuperazio-pausoa ere izan daiteke "sakonera handiko" ataza komunikatibo baten ostean (E). Ataza horiek ikasleek hobetu behar dituzten alde ahulak argitan uzteko erabiltzen dira, edota erronka handiagoetara pasatzeko prest dauden begiratzeko.

**Erabilera (E)
(aplikazioa/
hedapena/
transferentzia)**

E eraketak ahalik eta itxura benetako edo errealistenarekin aurkeztu beharko litzaizkieke ikasleei. Nork bere burua aditzera emateak edota komunikazioa lortzeko izan beharko lukete ardura nagusiak, eta ez hizkuntza estudiatzeko. Ikasleek ez badute sentitzen beren komunikazioa inolaz ere "erreal" denik, psikologikoki P-tzat hartuko dute, eta bur-

muinean emango dioten “helbidera” heltzea zailagoa izango da, gerora benetako komunikazioan berori gogoratzen ahalegintzen badira. Honek gauza interesgarri eta garrantzitsu bat erakusten du, hots, materialen prestatzailearen edo irakaslearen helburuak ez direla nahitaez ikaslearenak, eta horrek helburuen lau kategorietarako balio du. Benetako ataza komunikatiborik izan ezean, ikasleek beharbada irudimena erabili beharko dute *erabilera* kategoriako ataza bat burutzeko, umeen antzez-jolasetan bezala. Baina behin hori lortuz gero, fantasia errealtate bihurtzen da rol-jokoen, simulazioen edota problemak konpontzeko jardueren bitartez.

E-ren beste ezaugarri funtsezko bat hauxe litzateke: inork ere ez dakiela oso ondo jarduerak nora joko duen, edo nork esango duen zer. Sormena erabili behar da, eta ez da batere gauza segurua inor baliatu ahal izango denik aurretik prestatutako hizkuntzaz. Horrek beste desberdintasun bat markatzen du bene-benetako entzute edo irakurtzearen (E) eta trebezia horietako batekin edo biokin burututako T-ren artean. T-ren kasuan, testua hizkuntz item edo funtzio jakin batzuk modu globalean aurkezteko bide izaten da. Landu berri-berriena den hizkuntz itema ez litzateke testuan asko nabarmendu beharko (batere ez, beharbada). Ikasleei eskatu beharko litzaieke testua ulertzeko dauzkaten baliabide guztiak erabiltzeko, hizkuntzakoak eta bestelakoak. Bestalde, ikasleek funtzioari jarri beharko liokete arreta, ez formari.

Nahiz eta sarri askotan eskola bati amaiera emateko erabili, *Erabileraren* etapa beste edozein urratsen aurretik edo atzetik joan daiteke. Era berean, “sakonera handiko” hasierako “test” analitiko bat izan daiteke, irakasleari lagunduko diona hurrengo eskola batean zer irakatsi behar duen erabakitzen. A edo P erako errekuperaketak sor ditzake, edota T jarduera baten ondokoa izan, T horrek egitura egokia(k) aktibatutako ondoren. Dena dela, sekuentziaren barruan edozein lekutan azalduta ere, funtsean ikasleei aukera ematen die dauzkaten baliabide guzti-guztiak *erabiltzeko*.

Ondorioak

BEAri edota nire Lau Helburuko ereduari dagokienez, hortxe dago kokatzen: noraino aplikatu dakizkieke ereduok edozein testuliburutako jarduerari eta ariketei, edota bestelako materialari, material hori hizkuntzari nahiz hizkuntz trebetasunei begira egonik, edota bestelako trebetasunei, hala nola ikasestrategiak, hitzezkoa ez den komunikazioa, kulturen arteko desberdintasunen kontzientzia etab.? Aldaketarik behar badute, posible ote da beroriek egokitzea, baina erabiltezinak izateraino konplikatu gabe? Iruzkina, proposamenak eta alternatibak oso onartuak izango dira.

Itzultzailea: Ana Isabel Morales

Oharrak

- * Ingelesez "The four aims model: A more comprehensible schema for characterising aims in material design",
Folio (2/1 bol.: 15-18, 1995) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.
- 1 EFL = English as a Foreign Language, hau da, ingelesa hizkuntza arrotz gisa irakastea. I. O.
 - 2 APP = aurkezpena, praktika kontrolatua, praktika askea edo ekoizpena. Jatorrizkoan: PPP = Presentation, Practice, Production. I. O.
 - 3 ELT = English Language Teaching, hots, ingelesaren irakaskuntza. I. O.
 - 4 Hallyday-ren arabera, hizkuntzak hiru funtzio nagusi ditu: ideazionala, hiztun edo idazleak mundu errealaz edo irudimenezko munduaz daukan esperientzia antolatzeke balio duena; interpertsonala, pertsonen arteko harremanak ezartzeko balio duena; testuala, ahozko edo idatzizko

testu koherente eta testuingururako egokiak sortzeko balio duena. I. O.

Aipuak

Scrivener, J. 1993, PPP and After, UCLES RSA Cert TEFLA Conference Report (berriz inprimatua *Teacher Trainer*-en, 1994 8. alea, 1. zk.)

Tomlinson, B. T. 1983. An Approach to the Teaching of Continuous Writing in ESL Situations, *ELTJ* (urtarrila).

Woodward, T. 1993. PPP and Paradigm Shift UCLES RSA Cert TEFLA Conference Report.

Eskerronak

Eskerrak eman behar dizkiet Bill Stanford, David Bowler eta Jan Visscher lankideei, beren iruzkin eta proposamenengatik.